

Amaitu dira Urdanetan eta Bartzelona hiribidean oinezkoen pasabide goratuak jartzeko obrak

Urdanetako eskola-ingurunean zeuden beharrei eta Loiolako Erriberetako auzokideen eskaera bati erantzuteko egin dira lanak

Donostiako Udalak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Sailaren bitartez, hiriko bi eremutako irisgarritasuna eta bide-segurtasuna hobetzeko lanak amaitu ditu. Hain zuzen ere, Urdaneta eta Urbieta kaleen bidegurutzean eta Bartzelona hiribidean egin ditu lan horiek, ingurune horietan hautemandako beharrei erantzuteko. Modu horretara, beste pauso bat eman du pertsonentzat pentsatutako hiri seguruago eta irisgarriago bat lortzeko bidean.

Iñigo García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotziak nabarmendu duenez, "jarduketa horiek gure lan egiteko modua islatzen dute: bizilagunei entzutea, helarazten dizkiguten beharrei kasu eginez, eta esku-hartze txikiak eginda segurtasunean eta bizi-kalitatean eragin handia lortzen den lekuetan jardutea". Bestalde, adierazi duenez, "espazio publikoa eraldatzen jarraitzen dugu, hirian ibiltzea gero eta erosoagoa, irisgarriagoa eta seguruagoa izan dadin".

Urdaneta-Urbietako eskola-ingurunea hobetzea

Urdaneta eta Urbieta kaleetako bidegurutzean, Urdaneta kaleko 14. zenbakiaren parean, Urbieta-Urdaneta haur-eskolaren ondoan jardun da eta lanak ekainean amaitu dira.

Horri esker, inguru horretako segurtasuna areagotu da; izan ere, kontu handiz ibili beharreko ingurunea da hori, familia, adingabe eta oinezko ugari pasatzen baita hortik egunero-egunero. Helburua erabiltzaile guztientzat irisgarriagoa, seguruagoa eta erosoagoa den espazio bat sortzea izan da.

Orain arte, haur-eskolara sartzeko arrapala bat zegoen, normalean haur-kotxeekin eta -aulkiekin erabili izan dena, eta oinezkoen espazio eskas bat ere bazegoen aldamenean. Espaloi hori zabaldu egin da orain, oinezkoek pasatzeko toki gehiago izateko eta ikastetxeko irisgarritasuna hobetzeko.

Era berean, beste aldeko espaloia ere zabaldu da, galtzada gurutzatzen duten pertsonak ikuspen hobea izateko eta gurutzatze-distantzia murrizteko, oinezkoen segurtasuna areagotuz hala.

Osagarri gisa, oinezkoen pasabide goratu bat eraiki da. Neurri horrek ibilgailuen eta bizikleten abiadura murrizten lagunduko du puntu horretan, eta eskola-

Prentsa oharra

Nota de prensa



ingurunearen segurtasuna indartuko du.

Gainera, obrak eragindako hiri-zerbitzu nagusiak berritu dira, seinaleztapen horizontala eguneratu da eta bizikletentzako aparkaleku berriak jarri dira oinezkoen pasabidearen aurretik. Horren bidez, ikuspena hobetu da eta mugikortasun seguruagoa eta ordenatuagoa lortu da.

Oinezkoen pasabide goratu berriak Bartzelona hiribidean

Bartzelona hiribidean, Loiolako Erriberetan, oinezkoen bi pasabide berri eraikitzeke lanak ere amaitu ditu Udalak. Bizilagunak aspalditik ari ziren bide horretako segurtasuna hobetzeko eskatzen eta horri erantzunez egin dira lanok.

Pasabide berriak Bartzelona hiribideko 10-12 eta 17-19 zenbakien parean eraiki dira, eta hiribidearen bi aldeak lotzeko balio dute. Izan ere, bi puntu horietan oinezko ugari ibiltzen da joan-etorrian, eta, pasabide horiei esker, bizilagunek errazago egingo dituzte auzoko etxebizitza, plaza eta ekipamenduetarako joan-etorriak.

Oinezkoen bi pasabide goratuek bidegurutzera iritsi aurretik abiadura murriztera behartuko dituzte ibilgailuak, eta, horrela, oinezkoen eta ibilgailuen trafikoaren arteko bizikidetza hobetuko da. Gainera, irtenbide horrekin irisgarritasun hobe lortuko da mugikortasun urriko pertsonentzat, gurpil-aukien erabiltzaileentzat, haur-kotxeentzat eta bizikletentzat, bidegurutze erosoagoak eta seguruagoak eskaintzen baititu. Jarduketa osatzeko, seinale horizontalak eta bertikalak jarri dira, pasabide berriak ondo ikusten direla bermatzeko.

Iñigo García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotziak nabarmendu duenez, Bartzelona hiribideko esku-hartze horrek "bizilagunek Udalari aspalditik helarazitako eskaera bati erantzuten dio, eta gaur egun errealitatea da". Ildo horretan, azpimarratu du jarduera "Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako sailak bultzatutako irisgarritasun-programaren barruan hiriko auzoetan egiten ari diren hobekuntzen adibide bat dela". Eta hau ere adierazi du: "Pasabide goratu horiekin ibilgailuen abiadura moteltzea, oinez mugitzen direnen segurtasuna indartzea eta eguneroko ibilbideak erosoago eta eskuragarriago egitea lortzen dugu".

Beraz, Udalak espazio publikoan hobekuntzak sustatzen jarraitzen du, mugikortasun seguruagoa eta jasangarriagoa lortzeko, irisgarritasun unibertsala indartzeko eta herritarrek Donostiako auzoetan planteatutako premiei erantzuteko.